

Donostia, 2018ko ekainaren 15a

IDAZKARI NAGUSIARI

LAIKOTASUNARI BURUZKO KONTROL MOZIOA

Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udaltzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du. Mozioa hil honetako Batzordean bideratutako interpelazioaren ondorio da.

AZALPENA

Laikotasuna botere zibilaren subiranotasunaren, norberaren askatasunaren eta demokraziaren berezko nortasun ezaugarri bat da. Gizarte demokratiko eta sekularizatuek hainbat aldarrikapen historiko gauzatzea lortu dute: kontzientzia eta kultu askatasuna, hilerrien sekularizazioa, ezkontza zibila eta dibortzioa, ikerketa askatasuna, hezkuntza laikoa, erlijioaren inposizio-eza irakaskuntzan eta baterako hezkuntza. Gaur egun, horiek guztiak herritar gehien-gehienek ondua dira.

Beharrezkoa da banakako kontzientzia askatasuna bermatzea eta sustatzea, eta Estatua erlijio konfesio edo ideologia ororekiko independentea izatea. Horri esker, administrazio publikoen neutraltasun ideologikoa berma daiteke.

Legealdia hasi zenetik, Irabazi Donostia taldeak hainbat ekimen aurkeztu ditu, hiri demokratiko baten garapena bermatze aldera, Udalak eta udaltzak erlijio konfesio ororekiko benetako independentzia lor dezaten.

Hain zuzen, hil honetan, gobernatzeko programa bete behar dela azpimarratu nahi dugu, agur zibilak egiteko esparruen eskaintza bermatzeko.

Orobat, gure ustez, funtsezkoa da Udalak, Donostiako herritar guztien administrazioa den aldetik, erlijio izaerako ekitaldi eta ospakizunetara ordezkaritarik ez bidaltzea; hain zuzen, Andre Maria Basilikan uda oro egiten den Salbearen ekitaldian parte hartzeari uko egiten diogu.

Hil honetako batzordean, Salbearen ekitaldia dela eta, Udala Andre Maria Basilikako erretorearekin koordinazio lanetan ote zegoen galdetu zitzaion Alkateari. Alkateak erantzun zuen harreman publikoen udal lana laguntzako zela eta ez zegoela Udalaren mende Andre Maria Basilikan ordezkaritza publikoentzat lekua gordetzea.

Irabazi Donostian uste dugu akordioak lortu behar direla erlijio ekitaldietara joaten diren kargu publikoak norberaren izenean joateko, eta, beraz, Udalak ekitaldi horiei ez laguntzeko, eta leku nagusietan egotea ez onartzeko.

Hori dela eta, hau aurkezten dugu:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio erlijio izaerako erriturik edo ospakizunik susta ez dezan, eta antolatzen dituen ekitaldi guztiak zibilak izateko.
2. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio konpromiso bat har dezan, bere karguaren jardunean edo bere funtzioak egiten dituenean, erlijio irudiei mendetasun edo gurtza keinurik ez egiteko, eta erlijio ekitaldi horietan, hala nola Salbean, ez parte hartzeko. Konpromiso hori udalbatzako gainerako kideek eta udal administrazioaren zerbitzuan lan egiten duten pertsonak bete beharko dute. Beraz, ekitaldi horietan parte hartuz gero, ez dira kargu publikoak izateagatik lehentasuneko lekuetan jarriko.
3. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio kontzientzia askatasunaren eta laikotasunaren udal bulego bat sor dezan, udal talde politikoei, elkarteei eta herritarrei irekia, udalerrian laikotasunari, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalari, tolerantziari, pentsamendu eta kontzientzia askatasunari, eta, beraz, erlijio askatasunari buruzko informazio kanpainak egiteko.
4. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio **ESTATU LAIKO BATEN ALDEKO UDALERRIEN SAREA**ren sorrera sustatu eta hari atxikitzeko, **sare horretan sartu dela** jakinarazteko eta **erabaki hori info@redmunicipioslaicos.org helbide elektronikora bidaltzeko**. Hain zuzen, helbide horren bidez, sare horren sorrera koordinatzen ari dira, hurrengo biltzar konstituziogilean behin betiko sortu arte.

Sin.: Amaia Martin Garin,

Irabazi Donostia udal taldeko bozeramailea.